



Badator ehunmilak Ultra-Trail® probaren XII. edizioa, uztailaren 7, 8 eta 9an

Probaren aurkezpen prentsaurrekoa

ehunmilakek urtez urte hazten jarraitzen du, pausuz pausu baina etenik gabe. 2023 honetan, hamabigarren edizioan, parte-hartzaileen kopurua handitu da, korrikalarien errekor historikoa lortu da 3 probetako emakumeetan eta 1.600 lagunetik gorako boluntariorza taldea izango dugu!

Gaur eguerdian aurkeztu da ehunmilak probaren 2023ko edizioa, 2 parke natural (Aralar eta Aizkorri-Aratz) eta 30 herri gurutzatzen direlarik.

Kirol arloari dagokionean urteroko 3 probak mantentzen dira:

- **ehunmilak** Ultra-Trail® proba (168km / D+11.000m).
- **goierriko bi haundiak** trail (88km / D+6.000m).
- **marimurumendi** maratoia (42km / D+2.300m).

AURKEZPEN EKITALDIA

Aurkezpen prentsaurrekoko mahaia honako hauek osatu dute: Iker Goiria (Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo zuzendaria), Leire Artola (Beasaingo alkatea), Mikel Yerobi (Ternua Group-eko Brand manager-a), Mireia Trigueros (Euskal Mendizale Federakuntzako zuzendaritza batzordeko kidea eta mendi lasterketen arduraduna) eta Andoni Zubeldia (ehunmilakeko lasterketa zuzendaria).

ehunmilak 2023: Datu aipagarriak:

- **Parte-hartzaileen kopurua handitzea:** 3 probetako parte-hartzaileen kopurua handitu egin da. Aurtengo edizioan guztira 14 herrialde ezberdinetako 1.369 lagun ditugu izena emanda.
- Probaz proba honela daude banatuta partaideak: 472 partaide **“ehunmilak”** Ultra-Trail® proban (11 talde taldekako modalitatean), 547 partaide **“goierriko bi haundiak”** trail proban eta 350 partaide **“marimurumendi”** maratoian.
- **Emakumeen parte-hartzean errekor historikoa:** 28 emakume **“ehm”** Ultra-Trail® lasterketan, 53 emakume **“g2h”** trail lasterketan eta 73 emakume **“mmm”** marathon lasterketan.
- **1.600 bolondres baino gehiago:** korrikalariak behar bezala hartatu eta mimatzeko ibilbide osoan zehar 1.600 bolondres izango ditugu. Ziur aski, Goierriko hitzordua munduko trail ekitaldi garrantzitsu bakarra izango da korrikalari baina bolondres gehiago daudena.
- **Osasun taldea:** Boluntarioez gain, Gurutze Gorriko taldeak 150 kide baino gehiago ditu, baita

larrialdietako 24 mediku ere, bakoitza bere erizainekin egongo dena lanean guztia behar bezala atera dadin.

- Anoa gunerik handienetan (Tolosa eta Etzegarate) zein kiroldegiko azken anoa gunean **fisioterapia** eta **podologia** zerbitzuak egongo dira.
- **Ekoehunmilak (jasangarritasuna)**: Plastikoaren erabilera murriztea: edalontzi berrerabilgarriak egongo dira anoa gune guztietan, 5 litroko bidoiak 1,5 litroko botilen ordeztu, anoa guneetako ontziak eta mahai tresnak biodegradagarriak edo konpostagarriak izango dira.
- **Autobus zerbitzua**: Antolatzaileek autobus sare bat dute ibilbideko hainbat tokitara joateko.
- **Tolosako anoa gunearen toki aldaketa**: Ehunmilakeko antolaketarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta, Tolosako anoa gunearen kokalekuan aldaketa egin da. Hau, Usabal kiroldegian egin beharrean, Tolosako Beotibar pilotalekuan egingo da (herriaren erdian).
- **Nazioarteko sona**: Coloradoko (AEB) mendi garaietan egiten den “Hardrock 100 mile endurance run” lasterketarako proba kalifikagarria da ehunmilak lasterketa.
- **EMF txapelketa**: goierriko 2 haundiak lasterketa Euskal Mendi Federakuntzako ultra txapelketa eta EMF ultra kopako azken proba izango da.

SEGURTASUNA DENEN KONTUA DA

- **Derrigorrezko materialaren gogorazpena**: derrigorrezkoa izango da jaka iragazgaitza kaputxarekin eta atzealdeko argi gorria eramatea.

PROBAREN JARRAIPENA

Korrikalariak jarraitzeko modu ezberdinak egongo dira:

- Ibilbideko gune ezberdinetara doazen antolakuntzako [autobus zerbitzua](#) erabiliz.
- ehm edo g2h probetako korrikalarien daramaten Geokokapena edo GPS aparatuaren seinalearen bidez.
- Kontrol gune bakoitzean txipak markatzen duen denborarekin.
- Gure webgunearen bidez ikusi ahal izango den anoa gune ezberdinetako webcam irudien bidez
- Asteburu osoan zehar streaming-a egingo da helmugako pantaila erraldoian eta webgunean.

Informazio gehiagorako: www.ehunmilak.com

Facebook: <https://www.facebook.com/EhunmilakUltratrailG2h/>

Twitter: [@ehunmilakg2](https://twitter.com/ehunmilakg2)

Instagram: https://www.instagram.com/ehunmilak_ultratrail/

Kontaktua: ehunmilakultratrail@gmail.com

Kontakturako telefonoa: 676180690 (Iñaki)

Traola ofiziala: [#ehunmilak23](https://twitter.com/ehunmilak23)